



PRENTSA-OHARRA

Iruña, ekintzaile programak ekonomia sozialeko enpresa-ekimenak sustatuko ditu biltzar baten bidez eta proiektu berriak sortzen laguntzeko ikastaro baten bidez

Udalak eta CEINek bultzatu dute programaren edizio berria, eta haren barruan gizarte-ekintzailetzari buruzko biltzar bat egingo da apirilaren 24, 25 eta 26an

Iruñeko Udalak eta CEINek *Iruña, ekintzaile* programaren edizio berria abiatu dute gaur. Ekintzailetza programa honek, aurren, ekonomia sozialeko enpresa-ekimen berrien sorrera sustatu nahi du. Programak xede du parte-hartzaileak gaitzea ekintzaileak izan daitezen kooperatibismoaren eta gizarte-ekonomiaren arloan, sektore horrek erantzun berritzaileak ematen ahal baitizkie gizarte-beharrei, gizarte parte-hartzaileagoa eta kohesionatuagoa garatze aldera.

Tokiko Ekonomia Jasangarriko zinegotzi ordezkari Patricia Peralesek, CEINeko kontseilari ordezkari Pilar Irigoienek eta CEINeko koordinatzaile María Sanz de Galdeanok gaur goizean aurkeztu dute programa, zeina bi ekintza nagusiren bidez gauzatuko baita: batetik, *Gizarte-ekintzailetza* biltzarra, non sektoreko erronken eta aukeren inguruko ikuspegi globala eskainiko baita hiru egunetan zehar –apirilaren 24, 25 eta 26an–; eta, bestetik, *Ekintzailetza, gizarte-berrikuntza eta kooperatibismoa* izeneko ikastaroa, zeina abuztuaren 31tik abenduaren 21era bitarte garatuko baita, ostiralero, goizez. Jarduera guztiak doan izanen dira.

Aukerak antzeman

Apirilaren 24, 25 eta 26an *Gizarte-ekintzailetza* biltzarra izango da, Igogailuen Eraikinean, Descalzos kaleko 56ko 2. solairuan, eta arlo horretan interesa dutenei zuzenduta dago. Gaur egun gizarte-ekonomiak eskaintzen dituen aukeren eta erronken ikuspegi globala eskainiko du, kooperatibismoan eta gizarte-ekonomian adituak diren erakunde aztertzaileen eta beren esperientzien berri emango duten erreferentziazko entitateen bitartez.

Jardunaldietako bakoitzean gai jakin bati helduko zaio. Apirilaren 24an, asteartearekin, *Ekonomia kooperatiboa eta soziala* izango da ardatz; apirilaren 25ean, asteazkenarekin, *Kooperatibak sortzea*; eta apirilaren 26an, ostegunarekin, *Ekimen eraldatzaileak, kooperatibismoa* izeneko jardunaldia egingo da. Hirurak arratsaldean izango dira, 16:00etatik





19:00etara. www.pamplona.es eta www.cein.es webguneen bidez eman daiteke izena, izan jardunaldietako baterako, bitarako zein hiruretarako. Parte-hartzea librea da.

Ekintzaile izateko prestakuntza

Iruña, ekintzailek berriazko ikastaroa eskainiko du urteko azken lauhilekoan, kasu honetan gizarte-ekonomiako sektorean ekintzaile izatekoasmoa dutenei zuzenduta, baita kooperatibetako eta gizarte-ekonomiako ekimenetako kide diren eta ekintzailertzan, proiektu berrien sorreran eta berrikuntzan trebatzeko gaitasunak eskuratu nahi dituztenei ere.

Ekintzailertza, gizarte-berrikuntza eta kooperatibismoa izeneko ikastaroa abuztuaren 31tik abenduaren 21era bitarte garatuko da, ostiralero, 09:30etik 14:30era egingo diren 14 saiotan. Ikastaroa doan da, baina leku-kopurua mugatua da. Lekua erreserbatzeko www.pamplona.es eta www.cein.es webguneetan eskuragarri dagoen formularioa bete behar da. Ekainaren 22a baino lehen eman behar da izena. Argibide gehiago jasotzeko, 848 430030 telefonora deitu.

Ikastaro horretako edukiak hiru modulutan daude egituratuta. Lehenengoak gizarte-berrikuntza eta gizarte-ekonomia ditu ardatz, lau saiotan banatuko da, eta honako gai hauek landuko dira: gizarte-ekonomia XXI. mendean, enpresak eta gizarte erronkak, ekonomian goraka ari diren joerak, eta gizarte-berrikuntza.

Bigarren moduluak ekintzailertza kooperatibo eta sozialari buruzko hiru saio barne hartuko ditu: zure ideiatik negozio-ideiara, ekonomia sozialaren barruan; gizartean eragina duen finantzaketa; eta marketina, komunikazioa eta ekonomia soziala.

Hirugarren moduluan kooperatibismoa gizarte-ekonomia landuko da, sei saiotan zehar: entitatea sortzeko urratsak, legeak eta fiskalitatea, baliabideak eta aliantzak, babes eta laguntza publikoak, nazioartekotzea, eta lidergo kooperatiboa eta gobernantza. Behin modulua amaituta, ikastaroari buru emateko saio bat egingo da.

GIZARTE EKINTZAILERTZA BILTZARRA

Ekonomia kooperatiboa eta soziala jardunaldia

- Data: apirilak 24, asteartea. 16:00 – 19:00.
- Tokia: Igogailuen eraikina, Descalzos kaleko 56ko 2. solairua.
- Izen-ematea: [formulario](#) honen bidez.
- Programa:

Bi hizlariak ikerketa-jarduera handia eta gizarte-ekonomiako proiektuei bultzada uztartzen dituzte, eta ereduaren gaur egungo ikuspegi bat plazaratuko dute, baita erronkak azaldu ere.

16:00. Ongietorria. Patricia Perales (Tokiko Ekonomia Jasangarriko zinegotzi ordezkaria). Izaskun Goñi (Nafarroako Gobernuako Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusia eta CEINeko lehendakaria).





Hizlariak:

Aitor Bengoetxea. EHUKo Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuko [\(GEZKI\)](#) zuzendaria.

Aitzol Loyola. Mondragón Unibertsitateko Kooperatibismoaren Ikertegiko [\(LANKI\)](#) ikertzailea.

Beñat Irasuegi ([OlatuKoop](#)) arituko da eztabaida dinamizatzen.

19:00. Jardunaldiaren itxiera

Kooperatibak sortzea jardunaldia

- Data: apirilak 25, asteazkena. 16:00 – 19:00.
- Tokia: Igogailuen eraikina, Descalzos kaleko 56ko 2. solairua.
- Izen-ematea: [formulario](#) honen bidez.
- Programa:

Kooperatiben gizarte-bokazioa, erabakiak hartzeko eta gobernantzarako dituzten ereduak, erronka bereizgarriak eta berezko arrakasta-faktoreak.

16:00. Ongietorria.

Elena Zabalza. Nafarroako Gizarte Ekonomiako enpresen elkarte ([ANEL](#))

Carlos Rey. Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea ([REAS](#))

Amaia Oleaga. [KoopFabrika](#)

Elena Herrarte. [Bagara Herrigintzan](#)

Laura Martinena. [Ernaizu](#)

Raúl Pilar. [Gure Sustraiak](#)

Debate dinamizado por Carlos Rey ([REAS](#)) arituko da eztabaida dinamizatzen

19:00. Jardunaldiaren itxiera

Ekimen eraldatzaileak, kooperatibismoa jardunaldia

- Data: apirilak 26, osteguna. 16:00 – 19:00.
- Tokia: Igogailuen eraikina, Descalzos kaleko 56ko 2. solairua.
- Izen-ematea: [formulario](#) honen bidez.
- Programa:

Kooperatiben esperientzia jakin batzuk eta hainbat ikuspegitako lankidetzak-sareak.

16:00. Ongietorria.

Beñat Irasuegi. [OlatuKoop](#)

Ana Palacios. [Fiare Banca Etikoa](#)





Javier Zardoya. [Energía Gara - Som Energía](#)

Miguel Elorz. [Kamira](#)

Beñat Etxabarri. [Denendako](#)

Borja Etxeberria. [Uztaldi](#)

Andrés Jordana. [Mugitu Aventura](#)

Beñat Irasuegi ([OlatuKoop](#)) arituko da eztabaida dinamizatzen.

19:00. Jardunaldiaren itxiera

Iruñean, 2018ko apirilaren 12an

